

Etxerat.eus

Euskal Preso eta iheslari politikoaren senideen elkarte



DISPERTSIOAREN MAPA

Egun 455 dira espetxean dauden Euskal Preso Politikoen Kolektiboko kideak.


Hauxe da, espetxez espetxe, egoera:

Espetxeak

presoak Km.

Donostia hartu da erreferentzia moduan ibilbideen kalkulurako.

Iturria: Etxerat. Mapa: GARA



	Espetxe kopurua	Preso kopurua
Euskal Herria	3	5
Espainiar estatua	45	352
Frantziar estatua	26	96
Alemania	1	1
Ingalaterra	1	1
Portugal	1	1
Etxean preso	-	5
Guztira	76	455



Etxerat

ELKARTEA

1. Euskal preso eta iheslari politikoaren senideak eta lagunak gara. Senide izatea ez da hautazko egoera, espetxeak eta erbesteak inposaturiko egoera baizik. Hori dela eta, jatorri eta ideologia politiko ezberdineko pertsonen bilgunea da Etxerat elkarte.
2. Erbesteren ala espetxean ditugun senide eta lagunaren egoerak Giza Eskubideen urraketak salatzerantz bultzatzen gaitu eta, aldi berean, egoera horiek dira gure Giza Eskubideak urratzen dituztenak. Gure senideak maitatzeagatik, gure senideekiko dugun maitasunari uko ez egiteagatik.
3. Eskubideen urraketak salatzen ditugu. Gure senideei urratzen dizkietenak baita guri urratzen dizkigutenak ere. Xantai, presioak eta mendekua direlarik eskubideak urratzeko erabiltzen dituzten tresnak.
4. Bakea eta konponbidea lortzeko aurreneko pausua pertsona guztien eskubideen errespetua dela aldarrikatzen dugu.
5. Pairatutako sufrimenduaren aitortza aldarrikatzen dugu egian oinarritutako errelatoa egiteko, egoera hauek inoiz errepikatuko ez direla bermatzeko.

ZER DA **ETXERAT**?

Hau da elkarte honek preso eta iheslarien senide eta lagunei eskaintzen diena:

- Asistentzia, aholkularitza eta laguntza. Egoera mingarri honek sortutako samina txikitu eta leuntzeko tresnak. Bizitzaren alor guztiak ukitzen dituen egoera da hau fisikoki, psikologikoki, sozialki eta emozionalki eragiten baitute espetxeak, erbesteak edota deportazioak.
- Bizipenak eta esperientziak elkartrukatzeko bilgunea. Non egoera hauek ulertuak eta partekatuak izan daitezkeen.
- Lan esparrua: Non informazioa zein testigantzek, salaketek eta aldarrikapenek bat egiten duten.



ZER DA **ESPETXE POLITIKA?**

Espainiako zein Frantziako Gobernu desberdinek azken 30 urteetan gutxienez euskal preso politikoei aplikatutako espetxe politika berezitua da. Espainiako Kode Penaleko printzipioetan jasotzen denaren aurka: *“Cumplimiento de la condena allí donde el preso tenga arraigo social. Las cárceles españolas están diseminadas por todo el territorio nacional lo que permite que los internos cumplan su condena en la institución más próxima a su lugar de origen y evitar así el desarraigo familiar y social.”* Egungo 400 preso politikoko baino gehiago, 76 espetxetan dituzte sakabanatuak estatu espainiol zein frantsesean.

DATUAK

Batez besteko distantzia	Portzentajea	Senide eta lagunentzako ibilbidea
+1.000 km baino gehiagotara	14,06% (64 pertsona)	+ de 2000 km baino gehiago bisita bakoitzeko
990-800 km bitartean	26,81% (122 pertsona)	1800 bat km. Bisita bakoitzeko
790-500 km bitartean	36,48% (166 pertsona)	1300 bat km. Bisita bakoitzeko
490-400 km bitartean	6,81% (31 pertsona)	900 bat km. Bisita bakoitzeko
400 km baino gutxiagotara	14,72% (67 pertsona)	600 bat km. Bisita bakoitzeko
Portugal, Ingalaterra eta Alemanian	0,65% (3 pertsona)	2000 kilometro baino gehiago bisita bakoitzeko

Beraz, espetxe politika honen helburu argia presoak beraien inguru sozial, afektibo eta familiarra-rengandik urruntzea eta deserrotzea da. Gainera beraien herriko, Euskal herriko bizitza politikoan parte ez hartzera zigortuak daude.



ZEINTZUK BERE **ONDORIOAK?**

Preso dauden lagunei ezarritako salbuespeneko neurri honek, senide eta lagunengan eragin zuzena du.

Bisita egiteko eta komunikatzeko gure eskubidea gauzatzeko hilabetero, senide eta lagunok bidai luzeegiak egitera behartuak gaude baldintza okerretan, ordu eta erdiko hilabeteroko komunikazioa egin ahal izateko (batez bestekoa Espainiako espetxeetan). Familientzat higadura fisiko, ekonomiko, psikologikoa eta kezka nabaria da, areago urruneneko espetxeetan edota zigor oso luzeak betetzen direnean (31 urteko espetxe zigorrak betetzen dituztenean).

Ondorio larrienak azken 25 urteetan behintzat, errepideetan beraien lagunak edo senitartekoak ikusteko asmo bakarrarekin zihoazen 16 senide eta lagunak bizitzak ezbeharretan galtzea. Espetxe politika honek dirauen bitartean herritar asko hiltzeko arriskuan gaude. Egun, senide eta gertukoek bidegabekoa den egoera batera zigortuak gaude, senide izateagatik bidaiatzen jarraitzea zigortuak, gastu ekonomiko asumiezinak mantentzera gure harreman loturei uko ez egiteagatik. Familia izateko eskubidea, bizitzarako eskubidea eta askotan Osasuna izateko eskubideak espetxe politika honen helburu politikoen menpeko jarri dizkigute.

Espetxe politika honen eskubide urraketen biktimak bihurtu gaituzte, aitortza eta ezagutzarik gabeko izkutuko biktimak. Eraso, tratu txarren eta abusuen biktima bilakatu gaituzte. Diskriminazioa eta oinarritzko eskubideen urraketa sistematikora zigortuak gaude.

